

GUZIOK GATOZ ZU SALBATZERA

¡AMA EUSKERA!

Pozez beterik aditzendituzu zure semeak esnatzerakoan egiten dizkitzугun itzchoak ala nola chorikumeak zenbait esaten duten ama kabira datorrioten denboran! ¡Ah...! arkitudegu Ama bizia oraindik, bere kolkoan anparatzeko premian ikusigeranean, baña dago galdua ta tristea, bere begiak ¡erdi ichiak! gurontz zorrotz ipiñirik; bere begiratu sartzan zaigu biotzera, eta ez genezake esan zenbat eta nolako amorioa senti degun beragana.

«*Denbora da oraindik*, —esaten digu— nere kolkoan jaiotako »umeak; *Ama* izandu zan zuen lenbiziko itza; nik erakusi nizuten »Zerura erregutzen chikiak ziñatela; an...! amaren magal eta beso »ezti aetan jostatzen ziñaten egunetan, nik erakusi nizuten amatzen, »¡Ama! naizalako, eta erakusiko nizkitzuten beste gauz on guziak, »zuek, eriotzeko ordu arte nitaz azturik, erderaz ikasi nai izandu »ezbazenituzten, zergatik ¡lotsa gaitezte! Humboldt, ez nere seme, «baña bai nere miresle jakintsuenetatik batek esan oi duen bezela, »naizan ni modu miragarrienetatik bat gizonaren pensamentua adi- »tzera emateko; eta azkenik, neri zor nazute sekulan, mundurik »mundu, iñoren menpean izandu ez zeratelakoen agiria.»

Au aditurik, guzia egia, ¿zér esan genezake? Ama maite edo ez maite, ¿estimatzen ditugu geren buruak? Estimatzen baditugu, bear degu, bada, salbatu.

ANTONIO ARZAC.